


**IKASTETXEKO GIRO ONAREKIN BAT****3. Gelako BAT koaderno**

Talde bat eraikitzean denon artean izandako akordioak errespetatzeak ahaldu egiten du taldea. Hori berma daiteke **lankidetzan oinarritutako konpromisoari helduz gero**. Horretarako, —guztien jokabideen jarraipenean denok parte har dezaten—, baliabide egokiak sortu behar dira. Baliabide horiek era sistematikoan erabiliko dira eta lagungarriak izango dira adostutako jokabideak ohitura bihurtzeko. Kasu honetan, **gelako BAT koaderno** erabiliko da.

Jarduera hau egin baino lehen, komeni da  ariketa egitea, gelan giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

**HELBURUA**

- Ikasgelan **BAT** egunkaria izatea, gelako giroaren jarraipena egiteko.
- Parte-hartze aktiboa izatea.

**GARAPENA**

Denon artean adostutako 12 arauak errespetatzeko eta horiek ohitura bihurtzeko, garrantzitsua da aldiro horretaz hausnarketa egitea. Gelan denon artean apaindutako BAT koaderno izango dute, eta gelako jokabideen jarraipena egiteko erabiliko da.

Irakasleak koaderno bat ekarriko du eta, azalak apaintzeko, **binaka** jarriko dira. Marrazketa librea izango da, baina baldintza bakarra izango da: marrazkian BAT logoa sartzea. Jarduera hau egiteko, ordenagailuak erabil ditzakete, nahi izanez gero bertatik ideiak hartzeko.

Internetetik baimenduak diren gauzak erabiltzeko ohitura har dezaten, horiek lortzeko helbideak emango dizkiegu. Ondoren, **launaka**, bi marrazkiak erabiliz irudi bakarra osatuko dute, eskuz edo ordenagailuz. Erabakitze taldeetan egindako irudien artean zein izango diren koadernoaren azalak apainduko dituzten bi irudiak, lehiaketa bat egingo da eta, aukeratzeko, bozketa. Irudi bakoitzak zenbaki bat izango du eta bi irizpide erabiliko dira irudiak baloratzeko: originaltasuna eta elkartasun-adierazgarritasuna. Bi irizpide horiek kontuan izanik, ikasleek bere botoa emango dute, “Botoa” eranskina erabiliz, eta horretarako prestatutako kutxa batean sartuko dute. Ikasle batek botoak irakurriko ditu eta beste batek emaitzak arbelean idatziko ditu, denon aurrean.

Irakasleak blokeetako saio guztien bukaerako balorazioan egindako ekarpenak irakurri eta laburpena idatziko du koadernoan. Beharrezkoa ikusten duenean, denon aurrean irakurriko ditu.

Irakasleak ikasleei gogoraraziko dizkie egindako **“Ni eta nire taldea”** blokeko jardueren helburuak: ikasleak hobeto ezagutzeko eta denon artean giro ona izaten ahaleginak egitea.

Arbelean, denon artean, esaldi hau osatuko dute:

## NI ETA NIRE TALDEA


Gela honetako ikasleak .....gara  
Denok gustura egoteko..... egin dezakegu eta  
.....egingo dugu.

Irakasleak argazkia aterako dio eta **gelako** BAT panelean itsatsiko du, beste geletan ateratakoekin batera.

### DENBORA

Saio bat

### BALIABIDEAK

- Koaderno bat
- Margoak edota ordenagailua
-  jardueran egindako errespetuari buruzko 12 arauen kopia
- Eranskina: "Botoa"
- Kutxa bat
- Baimendutako irudiak lortzeko helbideak:  
<https://openclipart.org/>